

**SAIO KLINIKO OROKORRA – BASURTUKO UNIBERTSITATE OSPITALEA
PEDIATRIAKO ZERBITZUA**

**HIZLARIA: LUCIA RUIZ ARANZANA DK.
MIKELE MACHO AIZPURUA DK.
MODERATZAILEA: ELISA GARROTE LLANOS DK.**

2015EKO OTSAILAREN 6AN, 8:15EAN. GORBEIA EKITALDI-ARETOAN (GOBERNU PABILOIA)

KONTSULTARAKO ARRAZOIA

12 urteko neskatxoa. Kontsultarako arrazoiak: 5 egunean izan du eztula, sukar-puntua eta mina eskuineko saihetsean. Azken 48 orduetan, 40°C-rainoko sukarra izan du besapean. Mina areagotzen da eztularekin, arnasa sakon hartuz eta mugimenduekin. 3 egun lehenago balorazioa egin zaio toraxeko Rx-ekin: normala.

AURREKARI PERTSONALAK

2012an, bronkoespasmokrisia, salbutamolez tratatu zena.
Errinitis alergikoa, animalien epitelioekiko kontaktuagatik.
Larruazaleko lesioa, abszesu egindakoa, ezkerreko ukondoan, ingresatu aurreko hilean eltxo batek egindako ziztadaren ondorioz.

FAMILIA-AURREKARIAK

Aitak asma.
Ahizpak dermatitis atopikoa.

MIAKETA FISIKOA

TEP anormala (Jokabide normala; Arnasketa anormala; Zirkulazio normala).
T^a 39,4°C besapean; BM (FC) 150 lpm; TA: 120/60 mmHg; SapO₂ 94% (FiO₂ 0,21);
AM (FR) 35 rpm.
Egoera orokor onargarria. Normokolorazio mukokutaneo. Ez exantemarik, ez petekiarik.
Jarrera antialgikoa. Saihespeko tiradura arina. Lesio zarakartsu erresiduala ezkerreko ukondoan.
Bihotz-biriketako auskultazioa (ACP): Hipobentilazioa eskuineko oinaldean.
Bronkoespasmorik ez.
Aparatu bidezko gainerako miaketa klinikoa: negatiboa.

PROBA OSAGARRIAK

HRF: Hb 14,5 g/dl, plaketak 248000/mcl, leukozitoak 17.600/mcl (N 15.100/mcl, L 700/mcl).
BQ: PCR 18,5 mg/dl. Glukosa, giltzurrun-funtzioa eta ioi normalak. EAB: normala.
Hemokultiboa, arnas serologiak, isolamendu biralak....: emaitzen zain.
Toraxeko Rx: Fisura txikiaren parean, pleuran 7 mm-rainoko loditze txikia dago, eta, eskuineko sinu kostofrenikoan, atximur txikia.

Ingresatzea erabaki da, hau egiteko:

Bena barneko tratamendu antibiotikoa, eta azterketa diagnostikoa eta etiologikoa osatzea.